

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014-2015 ikasturtea

IRAKASLEEN JARDUN PRAKTIKA GENERO ESTEREOTIPOEN AURREAN

Egilea: Irati Bas Cilonizaurrecoechea

Zuzendaria: Leire Darreche Urrutxi eta Marina Ruiz Fernández

Leioan, 2015eko ekainaren 3a.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	5
2.1. Genero estereotipoak.....	5
2.2. Eskola eta genero estereotipoak	6
2.3. Irakasleen jokabidea genero estereotipoen aurrean	8
3. Metodologia	12
3.1. Laginaren deskripzioa	12
3.2. Informazioa jasotzeko tresnak	13
3.3. Prozesuaren deskribapena	15
3.4. Datuen analisia eta deskripzioa	16
4. Ondorioak	20
5. Erreferentzia bibliografikoak	22
6. Eranskinak.....	26

IRAKASLEEN JARDUN PRAKTIKA GENERO ESTEREOTIPOEN AURREAN

Irati Bas Cilonizaurrecoechea

UPV/EHU

Lan honekin bilatu nahi izan dugun helburu nagusia irakasleek generoaren berdintasunean oinarritzen duten bere jardun praktika ezagutzea izan da. Horretarako, hainbat adituren hitzak kontuan izanik, eskolek eta bertako irakasleek genero estereotipoen desagertzean betetzen duten funtzioa aztertu dugu eta diagnostiko txiki bat egin dugu, Haur Hezkuntzako ikasgela batean ikerketa ez-parte hartzaile bat aurrera eramanez eta zenbait elkarrizketa eta dokumentu analizatuz. Lortutako emaitza eta datuekin ondorioak atera ditugu lan hau, etorkizunera begira, hezkuntza hezkidetzaila lortzeko lagungarria izango delakoan.

Generoa, estereotipoak, berdintasuna, hezkidetzak, irakaslearen jarduna

El principal objetivo que hemos buscado mediante este trabajo ha sido conocer la práctica basada en la igualdad de género de los profesores. Para ello, y teniendo en cuenta las aportaciones sobre este tema de varios autores, hemos analizado la función que las escuelas y los maestros deben cumplir para fomentar la desaparición de los estereotipos de género, y hemos hecho un pequeño diagnóstico mediante una investigación no participativa en un aula de una escuela de Educación Infantil. Además, también hemos realizado ciertas entrevistas y análisis de documentos. Con los resultados obtenidos, hemos sacado conclusiones, pensando en que este trabajo pueda servir de ayuda para el camino hacia la coeducación.

Género, estereotipos, igualdad, coeducación, intervención del profesor

The main objective searched by this work is to know the practice based on the equality of the teachers. In order to obtain that, and taking into account some author's contributions, we have analyzed which should be the schools' and its teachers' function to promote the disappearance of the role stereotypes. We have also carried out a diagnosis in an Infantile Education classroom, using the no participative investigation as a method, and we have done some interviews and analyzed some documents too. With all of that, we have obtained our conclusions thinking that this work could be helpful in the way to improve the coeducation and the equality.

Gender, stereotypes, equality, coeducation, intervention of the teacher

1. Sarrera

Ikerketa lan honetan, Bilboko Ikastola baten genero estereotipoei ematen zaien trataera aztertu izan dugu. Azken urteotan, genero berdintasuna egunerokotasunean dagoen gaia da, herrialde anitzei kezkatzen dien gaia hain zuzen ere; eta hori dela eta, garrantzitsua deritzogu gai hau aztertzeari eta horren inguruan ekarpenen bat egiteko aukera izateari.

Lan honen xede nagusia genero berdintasunean heztea da eta hori lortzeko eta eskola hezkidetzaillea sustatzeko, hurrengoko orrialdeetan aztertuko dugun moduan, nahitaezkoa da eskolaren eta bertako partaide guztien parte hartzea. Xede horretatik abiatuta, genero estereotiporik gabeko eskolara bidean ekarpen bat egin nahi dugu, ikerketa bat eginez, gaiaren inguruan sakonduz eta amaieran, hobetzeko proposamenen bat emanez. Kasu honetan, gure ikerketa bi helburu nagusitan zentratuko da: irakasleek generoaren berdintasunean edo estereotipoetan oinarritzen duten bere jardun praktika ezagutzea; eta generoaren berdintasunean oinarritzen diren proposamenak egitea.

Gure ekoizpenean ikusi ahal izango den moduan, gure behaketa lana Ikastola zehatz batean zentratu dugu eta bertako irakasleak eta dokumentuak aztertu ditugu. Horren bidez, ikastola honetan genero estereotipoen haustura bat ematen ari dela ikusi dugu, irakasleek beraien jardun praktika genero berdintasuna bermatzen duen ikasketan oinarritzen dutelarik. Hala ere, hobetu beharreko aspektuak ere ikusi ditugu eta berdintasuna sustatzeko zenbait dokumentu ofizialen gabezia ere. Hori dela eta, egoera hori gainditzeko, lanaren amaieran zenbait proposamen egiten saiatu gara.

Hurrengo orrialdeetan gure lanaren garapena eta amaieran ateratako emaitza eta ondorioak ikusgai daude.

2. *Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.*

Nahiz eta gaur egunera arte egindako ikerketa gehienek oraindik ere gizarte sexista batean bizi garen ondoriora heltzen diren (Arenas, Blanco, Castañeda, Hernández, Jaramillo, Moreno, Oliveira, Santos eta Simón, 2000; Bonal, 2008; Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa, 2013), badaude zenbait artikulu genero estereotipoen haustura defendatzen dutenak, gizarte ez sexista bat abiapuntutzat hartuz, eta guk azkeneko hauetan jarriko dugu gure begirada.

Eskolek azken hamarkadetan, transformazio bat jaso izan dute gizartean eman diren aldaketekin bat. Hauen artean, nabarmenatariko bat eskolako ikasleen osaketa izan da, modu adierazgarri batean dibertsifikatu egin dena ikasleen jatorria, testuinguru soziokulturala edota familia jatorria bezalako irizpideen arabera. Beste adibide bat geroz eta gehiago hezkidetzan oinarritzen diren eskolak daudela da, nesken edo mutilen eskola bakarrak alde batera utziz. Hori dela eta, egungo hezkuntzak ase behar dituen beharrak orain dela zenbait hamarkadetan baino askoz anitzagoak dira. Aldaketa hauek hezkuntzaren oinarritzko ideien birplanteamendu eta berrantolaketa bat eskatzen dute, metodo tradizionalak baztertuz eta aniztasunean oinarritutako metodo berria eskatuz.

Eskoletan inklusioa eta, era berean, berdintasuna bultzatzea oso garrantzitsua da. Dakigunez, eskola gizartearen isla da, neurri txikiago batean, eta hori dela eta, ardatz garrantzitsu bat inklusioa bultzatzerako orduan. Hezkuntza inklusiboak ikasle guztien garapena ahalbidetzea du xede, ikasle denei kalitatezko hezkuntza eta aukera berdinak eskainiz eta genero estereotipoekin hautsiz.

2.1. *Genero estereotipoak*

Genero estereotipoak sexuaren arabera pertsonen esleitutako ezaugarrien eta nolakotasunen bilduma dira, eta gizon eta emakumearen identitatearen arabera egokitzen zaizkio sexu bakoitzari ezaugarri horiek. Gizarteak eraikitako ideiak dira, pertsona bakoitzaren jokamolde eta sentimenduak definitzen dituztenak eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak (Bonder 1993). Horrez gain, gehienetan,

iraunkorrek izaten dira eta askotan, eraikuntza sozial bat direla ahaztu egiten dugu, emakumezko eta gizonezkoen izaerari buruzko egi absolutu bilakatzen ditugularik. Horren eraginez, genero estereotipoen bidez, sozialki emakume eta gizonezkoen egokitutako rolak barneratu eta geureganatzen ditugu.

Aipatu bezala, genero estereotipoak ez dira nagusiki arrazoiaren bidez eskuratzen (Huici eta Moya, 1997), modu inkontziente batean barneratzen ditugu, bai helduek bai umeek, sozializazio prozesuaren eraginez. Umeek genero estereotipoak gizarte influentzietatik (kultura, familia, lagunak, komunikabideak, ingurua...) jasotzen dituzte, gizarteak moldeatu egiten baikaitu. Haurtzaroan haurrak jarrera sozialaren lehenengo urratsak bereganatzen ditu eta, horrekin batera, bere genero identitatea. Bai familiek, bai eskolek paper handia betetzen dute jabetze horretan, haurrek ikusi, esperimendu eta sentitzen duten hori erreproduzitzen baitute. Hori dela eta, eskola, nahiz eta zenbait muga izan, baloreetan oinarritutako hezkuntza bat emateko inguru pribilegiatua da (Capdevila, Vendrell, Ciller eta Bilbao la Vieja, 2014).

2.2. Eskola eta genero estereotipoak

Ikusi dezakegunez, eskolan genero berdintasuna sustatzearen ideia ez da gaur egungoa; jada urriak 3ko, 1/1990 Lege Organikoan, ikaskuntzaren printzipio nagusienetarikoa bat moduan aurkezten da bi sexuen eskubide berdintasuna eta edozein diskriminazio motarenganako ukatzea. Espainiako legerian, Hezkuntza Sistemaren genero diskriminazioaren legitimazioa aitortzen den lehen aldia izango litzateke honakoa, diseinu kurrikularrak honetaz jabetzen delarik eta ikasmaterialeko didaktikoen diseinuan genero estereotipo guztiak gainditzen dituelarik, bi sexuen arteko berdintasuna goraipatuz.

Gauzak horrela, hezkuntza genero berdintasuna lortzeko bide garrantzitsua dela argi baieztatu dezakegu. Horregatik, ezinbestekoa da bai neskei, bai mutilei aukera eta baldintza berdinak eskaintzen dien hezkuntza sistema bat ezartzea, bi sexuak diskriminatzen dituzten estereotipoekin hausteko eta haien arteko berdintasuna sustatzeko; izan ere, denok dugu ezberdintasunik gabeko hezkuntza bat jasotzeko eskubide osoa. Hori dela eta, hezkuntza komunitatearen jomuga nagusienetarikoa bat

haur hezkuntzatik genero berdintasunean hezte da, berdintasunezko gizarte justua lortzeko asmoz.

Haurra, haur hezkuntzatik, berdintasuna islatzen duten testuinguru antolatuetan haztea beharrezkoa izaten da, edozein genero estereotiporekin apurtzeko berdintasunean oinarritutako balio eta jarrera ezberdinak eskainiz. Zentzu honetan, hainbat eskola aurkitzen ditugu, non genero berdintasunaren konpromisoa eta ardura modu esplizitu batean hartzen duten beraien dokumentu idatzietan edota ezkutuko curriculumean.

Eskolan genero estereotipoak landu eta hauei aurre egiteko bide eraginkor bat Anti-bias Curriculumaren erabilpena izango litzateke, hainbat Ameriketako artikuluetan behin eta berriz errepikatzen den estrategia bat izanik (Derman-Sparks eta Hohensee, 1992; Kim eta Lewis, 1999; Lin, Lake eta Rice, 2008). Ikaskuntza plan honek genero estereotipoen sorkuntza eta erabilpena bideratzen du eta hauek murrizteko medio eraginkorra izaten da. Horrez gain, Alemania, Lituania, Norvegia, Espainia eta Turkian genero estereotipoei aurre egiteko estrategia ezberdinak planteatu dituzte¹ eta horrekin batera, genero mainstreaming-a jarri dute abian, ezberdintasunaren kontua gainditzeko ikuspegia ematen duena, berdintasunaren kontzeptua hedatuz, emakumeen parte hartzea bultzatuz eta berdintasunean oinarritutako politika bermatuz. Beraz, ikusi dezakegunez, mundu osoari kezkatzen dion gaia da genero berdintasuna eta hori dela eta, baliabide eta konponbide anitzak bilatzen ari dira hainbat herrialdetan. Garrantzitsua da eskolan gai hori lantzea eta modu egoki batean bideratzea; izan ere, genero estereotipoek ikasleek beraien aurkako generoko ikasleekin elkarreraginik ez izatea, estereotipatutako jostailuekin jolastea edota horrelako egoerak eragin ditzakete, beraien gaitasun sozialak eta kognitiboak mugatuz (Rainey eta Rust, 1999).

Genero estereotipoek bi sexuei egokitu dizkien jarrerak oinarritik erasotzeko eta hauek ezabatzen saiatzeko bidea sentsibilizazio prozesu bat da, eskolaren papera eta

¹<http://www.genderloops.eu/es/>

irakasleen papera birplanteatzera eramaten gaituena. Eskolan egiten diren jarduerak eta ekintzak birplanteatu egiten dira, hartzen diren jarrerak edota sustatu nahi diren balore eta rolak. Eskolako elkarreraginaren eta bertako kide guztien laguntza eta konpromisoaren bidez, egin behar zaie aurre genero estereotipoei eta eskolak arazo hau gainditzeko soberako gaitasuna du. Hori dela eta, ikasleek, irakasleek baita gurasoek ere, genero estereotipoei eta ezberdintasunei aurre egiteko baliabideez hornitzeko erantzukizuna hartu beharra dute.

Egokitutako rola aldatu ahal izateko, lehenik eta behin, ezarrita dauden estereotipoak eta sexu bakoitzari atxikitako rolak (gizonezkoa: indartsua, kirolaria, ekintzailea; emakumea: sentikorra, pasiboa, beldurtia...) aztertu eta zalantzan jarri behar dira eta eskolako eduki kurrikularrak transmititzen dituzten ereduak, materialak edota espazioen inguruan hausnartu². Are gehiago, irakasleen hurrekiko harremana ere aztertu beharko litzateke, sexuaren arabera beraien jarrera aldatzen den edo ez, erabiltzen dituzten hitzen erabilpena egokia den edo estereotipatuak dauden, ikasleekiko dituzten itxaropenak zeintzuk diren, eskaintzen dituzten materialak estereotipatuak dauden eta halakoak ikertuz. Azken batean, egin beharrekoa hezkidetzaren sustatzea izan beharko litzateke.

“Hezkidetzaren moduan ulertzen da pertsonen garapen osoa ahalbidetzen duen prozesua, pertsona horren sexua edozein dela ere. Ondorioz, eskola hezkidetzaille moduan ulertzen dugu sexuaren inguruko ezberdintasunak zuzendu eta desagerrarazten dituen eskola, baita ikasleek beraien pertsonalitatea libreki eta berdintasunezko giro batean garatzeko aukera eskaintzen duen eskola ere, sexuaren araberako muga eta baldintzarik gabe.”³ (Dorelo, 2005, 3. or.)

2.3. Irakasleen jokabidea genero estereotipoen aurrean

Irakasleen jarrerak eta jokabideak ezinbesteko papera betetzen du genero estereotipoen haustura eta desagerpenean. Eskolan berdintasunean oinarritutako hezkuntza praktika garatzeko eta benetako eraldakuntza emateko, ezinbestekoa da

²<http://www.euskalnet.net/muskiz/pag52.htm>

³ “Se entiende por coeducación el proceso educativo que favorece al desarrollo integral de las personas con independencia del sexo a que pertenezcan, y en consecuencia, entendemos por escuela coeducativa aquella en la que se corrigen y se eliminan todo tipo de desigualdades o mecanismos discriminatorios por razón de sexo y en la que los alumnos y alumnas puedan desarrollar libremente su personalidad en un clima de igualdad real y sin ningún tipo de condicionantes o limitaciones impuestas en función de su sexo”.

irakasleriaren inplikazioa eta horrekin batera, kontzientzia hartzea eta formakuntza on bat jasotzea (Colás eta Jiménez Cortés, 2006).

Hainbatetan aipatu izan den moduan, irakaslea haurrarentzako eredu da eta hori dela eta, erabiltzen duen hizkuntza eta generoarekiko duen jarrera oso ondo aztertu eta kontuan izan behar du estereotipatutako jokabiderik ez izateko.

“Haur Hezkuntzako ikasgela batean dagoen edozein irakasle, gizon edo emakume, gerora estereotipoak sortu ditzaketen erreferentzia eta jarrerak modu inplizitu batean ez helarazteko adi egon behar da”⁴ (Abril eta Romero, 2008, 5. or.).

Eskolan hezkidetzak sustatzeko, irakaslearen jarduna ezinbestekoa da. Honek, lehenik eta behin, ikasleriak berdintasunezko jarrera duen behatu beharko luke. Horrekin batera, lehenengoko etapatik, Haur Hezkuntzatik, ezberdintasuna eta genero estereotipoak alde batera uzten dituzten joko eta dinamikak eskaini beharko lituzke eta horrez gain, rol aldaketa egiteko aukera eman. Gainera, hezkidetzak bultzatzeko tailerrak sor zezakeen bai ikasleentzako, bai gurasoentzako.

Kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat irakasle ikasle harremana izan beharko litzateke. Gela barruan irakasle eta ikasleen arteko harremanak berebiziko garrantzia dauka; bertan, irakaslea eredu edo erreferentzia da haurrarentzat eta honek irakasleak transmititzen diona ikasiko du, horregatik, ikasleekiko, bai neska bai mutilekiko jarrera berdina izan behar du. Baina badirudi, sexu desberdinekiko harreman horiek, sarritan, ez direla maila orekatuan gertatzen; izan ere, Aspiroz-ek dioenaren arabera, frogatuta dago irakasleek, nahi gabe, mutilei neskei baino arreta gehiago eskaintzen dietela. Horrekin batera, neska edo mutila izan, irakasleek gugandik espero dutena desberdina izan ohi da eta hori zuzentzen saiatu behar dira irakasleak, horretarako, neska-mutilei harremanak modu positiboan eraikitzekeko estrategiak eman behar dizkiete eta gizartetik jasotzen dituzten harreman ereduak zalantzan jarri behar dituzte (Aspiroz, 2005).

⁴“Cualquier profesor, hombre o mujer que esté en un aula de infantil, tiene que estar muy atento a no introducir de manera implícita, sin querer, modelos de comportamiento y de referencia que después provocarán estereotipos”.

Aipatutako kontuan hartu beharreko ideiez gain, aipu berezia egin behar zaio hizkuntzak sexismoaren transmisioan duen garrantziari, gehienetan, konturatu barik, estereotipatutako hizkuntza sexista erabiltzen baitute irakasleek eta ondorioz, ikasleek barneratu egiten baitute. Hizkuntzak gure kulturak dituen baloreak transmititzeko balio du baina, maiz balore horiek hizkuntza sexista batez bidez taxututa daude (Alfonso eta Aguado, 2012).

Esan bezala, irakasleek faktore horiek kontuan izan behar dituzte estereotipatu gabeko ikaskuntza bat aurrera eramanez ahal izateko; hala ere, batzuetan, iniziatiba edo ekimen horiek aurrera eramatea zaila suertatzen zaie eta genero estereotipoen iraunkortasuna bermatzen duten zenbait oztopo aurkitzen dituzte. Hasteko, irakasle gehienek bai neskek, bai mutilak, era berean tratatzen dituztela uste dute eta beraz, gai honen aurrean neutral jarraitu behar dutela. Horrekin batera, beste hezkuntza arazoak genero berdintasuna bermatzea baino garrantzitsuagoak eta premiazkoagoak direla pentsatzen dute gehienetan. Horrez gain, esku hartzearen beldurra egoten da, hots, kontrako iritziak esnatzearen edota laguntzarik ez izatearen beldurra. Gainera, irakasleek, maiz, gai honekiko informazio eta baliabide eta material falta handia dute eta askotan, zenbait sinesmen kulturalen aurka joan behar dira genero berdintasuna bermatzeko.

Horregatik, gehienetan, genero berdintasuna tratatzen denean, zeharkako modu batean ematen da, irakaslearen gai horrekiko interesaren arabera eta, maiz, genero berdintasuna lantzea irakaslearen aukeraketa izaten da. Baina, genero berdintasunaren gaia egunerokotasuneko jardueretan barneratuta egon beharko litzateke eta irakasleak irakasgai guztietan, zeharkako modu batean sartzeko gai izan beharko lirateke. Horretarako, etengabeko prestakuntza bat jasotzea oso eraginkorra izango litzateke (Abril eta Romero, 2008). Horrekin batera, irakasleak bere jarduna ondo betetzeko eta berdintasunean oinarritutako ikasketa bat eman ahal izateko, eskolan berdintasuna bermatzen duten oinarritzko zenbait dokumenturen laguntza izatea ezinbestekoa suertatzen da ere.

Aztertu dugun moduan, oztopoak handiak dira baina, hauek gainditzeko aukera dago eta horretan ari dira lanean hainbat ikastetxek eta hauek osatzen dituzten irakasleek. Andaluzian adibidez, Hezkuntzan gizon eta emakumeen berdintasun plana jarri dute abian, non helbururik garrantzitsuena eskolan genero ikuspegia transformatzea den, sexuen arteko ezberdintasunen ezagutza erraztuz, berdintasunean oinarritutako hezkuntza praktikak bultzatuz edota bi sexuen arteko harremanak sustatuz. Plan honek eragin zuzena du eskolako antolakuntzan, curriculumean eta, nola ez, irakaslerian. Irakasleriaren esku hartzea berdintasuneranzko aldaketa prozesuan gakoa da; izan ere, beraien bidez transmititu eta erreproduzitzen dira gure kulturaren atxikitako ereduak, haiek dira haurrentzako sozializazio eredu batzuk. Horregatik, garrantzitsua da plan horren ardura hartuko duen irakasleria sortzea eta horretarako, ezinbestekoa da, lehen aipatu dugun moduan, gaiarekiko sentsibilizazioa eta horrekiko formakuntza bat jasotzea (Rebollo, Vega eta García-Pérez, 2011).

Andaluzian bezala, Euskal Herrian ere, genero berdintasuna bermatzeko Eusko Jaurlaritzako 2013ko plana dago, non hezkuntza komunitate osoaren (Hezkuntza sistemako partaideak, hezkuntza administraziokoak, berdintasun organismoak, diskriminazioaren aurka doazenak...) esku hartzeko beharreen jartzen den jomuga. Hezkidetzan oinarritutako eskola bilatzen du honek, berdintasuna bermatzen duena, curriculumean emakumeek egindako ekarpen sozialak biltzen dituena edota irakasleen gaiarekiko sentsibilizazioa bilatzen duena eta, horretarako, ezinbestekoa suertatzen da hezkuntza komunitateko kideen laguntza eta parte hartzea.

Laburbilduz eta konklusio bezala, esan beharra dago, orrialde hauetan zehar ikusi izan dugun moduan, genero berdintasuna herrialde gehienek kezka nagusia bihurtzen hasi dela azken urteotan, eta hau sustatzeko gunerik garrantzitsuena eta eraginkorrena eskola dela. Hori dela eta, eskola barruan berdintasuna bermatzen duten dokumentuen sustapena eta, gehien bat, irakasleen jardun praktika egoki bat egotea ezinbestekoa suertatzen da.

3. Metodologia

Metodologia nahitazeko tresna da ikerkuntza lan bat aurrera eramateko; izan ere, planteatzen dugun arazoaren aurrean errealitateak ez digu berez erantzungo; erantzunak bilatu beharko ditugu eta behaketa bat egin. Metodologiak bide hori erraztu eta gidatuko digu⁵.

Ikerketa hau aurrera eramateko, metodologia kualitatiboan oinarrituko gara. Martinez Miguélez-ek (2006) bereizten dituen metodologia paradigma desberdinak kontuan izanik. Guk hautatutakoa paradigma interpretatzailean kokatu dezakegu; izan ere, gure gizartea eta fenomeno sozialen esanahia aztertu nahi dugu irakasleen jarrera, pentsamendu eta iritzien bitartez, irakasleek errealitatea nola interpretatzen duten, eta ikertzen gauden gaiarekiko zer jarrera duten behatzeko. Metodologia honen bidez, partaideek beraien barreneko iritzia, sentimenduak, estereotipoak, emozioak edota kontraesanak adieraz ditzakete, eta horrek guztiak aberastasuna ematen dio interpretazio analisiari (Larrinaga, Usategui, Amurrio eta del Valle, 2011). Beraz, esan dezakegu, paradigma hau, azken batean, bizitza errealean oinarritzen dela, datu kualitatiboetan hain zuzen ere.

3.1. Laginaren deskripzioa

Burutu beharreko ikerketa lana Bilboko Ikastola batetako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, bigarren mailako (5 urte) ikasgela batean eramango dugu aurrera. Esan beharra dago, ikerketa honetarako Ikastola zehatz hau aukeratu izanaren arrazoi nagusia Practicum IIIa bertan egingo dugula dela.

Gela honetan, hogeita sei ume daude, hamalau neska eta hamabi mutil. Ikasle hauek anitzak dira eta erritmo eta interes ezberdinak dituzte. Horrez gain, aipatzeko modukoa izango litzateke, arreta berezia deitzen duten premia bereziak dituzten bi ume daudela ikasgela honetan. Horietako batek garun-paralisia du eta gorputzeko ezkerreko atalak kaltetuta ditu. Beste ikaslea “Kabuki sindromea” deitutakoa du, munduan 400 umek bakarrik sufritzen dutena. “Kabuki sindromea” garapenari eragiten dion gaixotasun arraroa da, atzerapenarekin eta anomaliarekin erlazionaturikoa.

⁵ <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152152/136266>

Bai “Garun-paralisia” duenak, bai “Kabuki sindromea” duenak hezitzaile berezi biren laguntza dute gela barruan. Bata egunero etortzen da lehenengo orduan, korru orduan, bestea, berriz, egunean zehar etortzen da ikasle hauek laguntzen, eta biak gela barruan egoten dira beraiekin.

Aztertu eta behatuko dugun irakasleari dagokionez, zazpi urte daramatza lan egiten ikastola honetan. Berak irakasle-ikasketak, Haur Hezkuntza espezialitatea, egin zituen; baina horren aurretik, “enpresen administrazio eta zuzendaritza” eta “publizitatea eta harreman publikoak” ikasi zituen. Horrez gain, irakasle lanetan hasi baino lehen, enpresa batean egin zuen lan eta ondoren euskaltegi batean euskarazko klaseak ematen. Irakaslea bost urteko ume hauen tutorea izateaz gain, hizkuntza eta kultura batzordean parte hartzen du. Horrez gain, esan beharra dago ikasle hauekin hiru urte daramatzala, 3 urterekin hartu baitzituen.

3.2. Informazioa jasotzeko tresnak

Informazioa jasotzeko tresnak	Informazio tresnen erabilpena
Behaketa ez parte-hartzailea	Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (5 urte) ikasleen tutorea eta ikasleekin erabiltzen dituen materialak.
Elkarrizketak	Tutoreari, bigarren zikloko beste bi irakasleri eta gelan egoten diren bi hezitzaile bereziei.
Dokumentuen analisia	Ikastolako Berdintasun Plana, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Ikasgelako programazioa.

- Behaketa ez parte-hartzailea:

Gure ikerketa irakaslearen funtzioan zentratuko denez, aukeratutako irakaslea izango da gure informazio iturri nagusia gure ikerketa aurrera eramateko eta, gero, proposamenak egiteko. Beraz, irakaslearen generoaren berdintasunean edo estereotipoetan oinarritutako jardun praktika behatuko dugu, gure informazioa biltzeko tresnarik

premiazkoena behaketa ez parte-hartzailea izanik. Irakaslearen jardun praktikatik behatuko dugun oinarrikoena honako hau izango da:

- Hurrekin duen jarrera (berdin bideratzen den neska eta mutilei, laguntza berdina eskaintzen dien, tonu berdinarekin hitz egiten dien...).
- Erabiltzen duen hizkuntza sexista edo inklusiboa den.
- Erabiltzen dituen materialek genero estereotipoak islatzen dituzten edo berdintasunean hezten duten.

Behaketa hau egiteko une egokiena korrua izango litzateke, irakasle-ikasleen arteko elkarrenergina dagoelako, umeak beraien sentipen eta bizipenak kontatzeko unea delako eta eguneko momentu garrantzitsu bat delako. Horregatik, gure behaketa egunero burutuko dugu korruan, hau da, 9:00ak eta 9:30ak bitartean.

Aipatu dugun moduan, irakaslearen jardun praktikaz gain, erabiltzen dituen materialak ere aztertzea aberasgarria izango litzatekeela deritzogu; horregatik, klaseko momentu ezberdinetan ikasleei eskaintzen zaizkien materialak (bideoak, ipuinak, jolasak...) ikertuko ditugu.

- Elkarrizketa:

Gure ikerketa aberasteko, zenbait elkarrizketa egingo ditugu. Hauek bai gelako irakasleari, bai klasean sartzen diren eta ikasleekin kontaktua duten beste irakasle batzuei egingo dizkiegu. Aurrerago aipatu bezala, ikasgela honetan, bi hezitzaile berezi egoten dira egunean zehar bertako bi ikaslerekin egoteko, beraz, hauei elkarrizketa egingo diegu. Horrekin batera, mailako beste irakasleren baten iritzia jakitea ere aberasgarria izan liteke. Elkarrizketa hauek hiru esparru nagusitan bananduko ditugu: esparru instituzionala (zentroko dokumentuei buruzko galderak); esparru didaktikoa (hurrei bideratutako proposamen didaktiko eta programaketen inguruko galderak); eta iritzi pertsonalen esparrua (genero estereotipoen transmisio eta genero diskriminazioen inguruko hezkuntza praktika).

Gelako tutoreari egindako elkarrizketa grabatu egingo dugu, pentsatzen duena ondo aztertu ahal izateko eta behatutakoarekin kontrastatzeko aukera izateko. Gainerakoei,

berriz, test edo inkesta bat egingo diegu, gehien bat, tutoreak eta beraiek bat datozen edo ez, hots, gela barruan genero estereotipoei ematen zaien trataeraren inguruan berdin pentsatzen duten edo ez, aztertzeko.

- Dokumentuen analisia

Irakaslearen jarrera aztertzeaz aparte, ikastolako zenbait dokumentuen analisia ere egitea gure ikerketarako aberasgarria izan daitekeela uste dugu; hori dela eta, Ikastetxeko Berdintasun Plana aztertuko dugu, aplikatzen den edo ez aztertzeko eta, aplikatzekotan, zelan egiten duten ikusteko. Horrekin batera, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta ikasgelako programazioa ere aztertuko ditugu, Haur Hezkuntzako jardueretan edota egunerokotasunean generoa kontuan izaten den ikusteko.

3.3. Prozesuaren deskribapena

- Lanaren denboralizazioa

Jarduera	Denboralizazioa
Iturri bibliografikoen analisia	Urriaren amaieratik urtarrilera arte.
Gelaren behaketa	Martxotik apirilera, egun guztietan korruaren orduan (9:00-9:30), irakaslearen jardun praktikaren azterketa. Apirileko hilabete osoan zehar, edozein momentutan, ikasleei eskainitako materialaren azterketa.
Elkarrizketak	Gelako tutoreari: apirilak 13. Hezitzaile bereziei: apirilak 13 eta 20. Mailako irakasleei: apirilak 22 eta 29.
Dokumentuak	Berdintasun Planaren, Hezkuntza Proiektuaren eta Ikasgelako programazioaren azterketa apirilean zehar.
Lortutako datuen analisia	Maiatzean.

3.4. Datuen analisia eta difusioa

- Behaketa

Behaketa ez-parte hartzaile honetan, 5 urteko ikasgelako irakasleak hurrekin duen jarrera aztertu dugu, lehenik eta behin. Horretarako, aurrerago aipatu izan dugun moduan, korruko momentuak erabili ditugu.

Irakasle honek esparru gehienetan berdintasuna bermatzen duela baieztatu dezakegu: bai neskei, bai mutilei berdin bideratzen zaie, zerbait galdetu edo eskatzerako orduan, biak motibatu eta animatu egiten ditu beraien lorpenak eskuratzeko, edota bie eskaintzen die laguntza berdina beharrezkoa duten momentuetan. Korruan, umeei beraien emozioak azaleratzen uzten die eta beraien sentipenak espresatzen eta, horretan ere, ez du desberdintasunik egiten, bi generoek izaten dute sentitzen dutena azaltzeko aukera berdina. Gauzak horrela, bai neskek, bai mutilek, beraien emozioak adierazteko askatasun berdina izatea bilatzen du beti.

Higienearen kontuan, ordea, bai aztertu izan dugu, irakasleak neskenganako duen itxaropena handiagoa dela eta beti garbi-garbi egon behar direla uste duela. Mutilekin, aldiz, malguagoa izaten da eta zikintzen direnean ez dio hainbesteko garrantzirik ematen.

Horrekin batera, zenbait kasutan, aurreiritziak direla eta, umeen aita eta amaren funtzioetan ezberdintasunak egiten ditu guztiz estereotipatutako ideia batetatik abiatuz; izan ere, sozialki emakume eta gizonezkoei egokitutako rolak barneratuta eta bereganatuta ditu. Adibidez, etxera zirkularren bat eraman behar denean, batzuetan zirkular hori jasotzea, irakurtzea eta bertan jartzen duena egitea amaren egitekoa dela transmititzen du (“Emango dizuet papertxo bat amari emateko...”, “Esan amatxuri aitaren kamiseta handi eta zahar bat behar dugula...”). Jantzkerari dagokionean ere, umek jantzen dituen ama dela aintzat ematen du (“Amak egin dizu ile-mototsa ezta?”, “Amak beti jantzen du ume hau oso dotore...”). Hala ere, egindako akatsez konturatzen denean, berehala bere gaizki egitea zuzentzen saiatzen da.

Irakaslearen hizkerari dagokionez, lehenik eta behin, esan beharra dago, ikasle denei bideratzeko erabiltzen duen tonua berdina dela, bai azalpenak ematerakoan, gatazkak konpontzerakoan edo norbaiti egindakoa txarto dagoela esaterakoan. Bai mutila, bai neska izan akatsen bat egiten duena, beti bideratzen zaie biei modu eta tonu berdinean. Horrez gain, erabiltzen duen hizkuntza inklusiboa dela aztertu dugu (“neska-mutilok”, “aita-ama”...). Hala ere, batzuetan, konturatu barik, estereotipatutako hizkuntza eskapatzen zaio baina, kasu gehienetan, bere huts egiteaz konturatu eta berehala zuzentzen saiatzen da.

Behaketa ez-parte hartzaile honekin amaitzeko, irakasleak umeekin erabiltzen dituen materialek genero estereotipoak islatzen dituzten edo berdintasunean hezten duten behatu dugu. Ikastola honetan, proiektuak lan egiten dute eta hori dela eta, material anitzak erabiltzen dituzte. Guk horietako batzuk (ipuinak, jolasak, bideoak...) aztertu izan ditugu eta hauetan barietate handia aurkitu dugu. Ipuinei erreferentzia eginez, batzuk ipuin tradizionalak dira eta, beraz, guztiz estereotipatuak; izan ere, ipuin hauetan protagonista nagusia beti da mutila eta arazoetan sartzen dena eta salbatua izan behar dena neska. Beste batzuk, landutako proiektuekin lotura dituzten ipuinak dira eta hauetako batzuk ere, genero estereotipoz josita daude. Hala ere, estereotipatu gabeko ipuinak ere badituzte, ipuin berriak, irakasleek aukeratutakoak.

Gelan dituzten jokoei dagokienez, estereotipatu gabeko jokoak direla esan dezakegu. Eraikuntzak dituzte, piezak, marrazkiak egiteko materiala... genero konnotaziorik gabeko jokoak dira horiek. Honi lotuta, ikasgai ezberdinetan egiten dituzten jolasak (animalien jolasa, arto-palomitak, gidaria eta itsua, kanika...) aztertzen baditugu, hauek ere estereotipoz aske daudela ikusi dezakegu.

Umeei ikusitako bideoen inguruan hitz egiten badugu, berriz, gehienetan pelikula tradizionalak (Disney-ko pelikulak, Frozen...) ikusten dituztela behatu dugu eta horiek guztiz estereotipatuak egoten dira. Beste batzuetan, proiektuekin erlazionaturiko bideoak ikusi izan dituzte (“Bizkaiko aberatsak”, “Bizkaia dubi dubi”, “Ura da zure laguna”...) eta hauetan, ez dugu estereotipoen presentziarik sumatu.

Laburbilduz, irakasleak eskaintzen dituen materialei erreferentzia eginez, bai esan dezakegu, batzuetan material sexistak eskaintzen dizkiela umeei. Materialak erosi behar direnean, kontuan izaten dute genero estereotiporik transmititzen ez dituzten materialak aukeratu behar direla; hala ere, proiektuetarako materiala aukeratzeko dutenean, lehentasuna ematen diote gaiarekiko duten loturari, eta genero berdintasuna bermatzen den edo ez, alde batera geratzen da. Horrekin batera, ipuin eta bideo tradizional asko erabiltzen dituzte beraien egunerokotasunean eta hauek guztiz estereotipatuak egoten dira.

- Elkarrizketak

Genero estereotipoak bai ikasgela mailan, bai ikastola mailan zelan tratatzen diren aztertu ahal izateko, 5 urteko gelako tutoreari elkarrizketa bat egin diogu. Horrekin batera, mailako beste bi irakasleri eta gela barruan egoten diren beste bi hezitzaile bereziri ere, galdetegi bat egin diegu beraiek diotena eta tutoreak dioena bat datorren edo ez behatzeko.

Elkarrizketak hiru esparru ezberdin izan ditu eta horietan lortutako emaitzak ere desberdinak izan dira. Lehenengo esparrua esparru instituzionala izan da eta honetan, irakasleak nahiko galduta daudela ikusi dugu; izan ere, Berdintasun Planaren inguruan galdetzen zaienean, beraien erantzunak anitzak dira. Batzuk badagoela esaten dute, beste batzuk ezetz eta azkeneko batzuk, ez dakite. Egia esan, ikastolan Berdintasun Planik ez dago idatziz; DBH-en berdintasunaren sustapena abian jartzen ari dira baina, dokumentu idatzirik ez dago eta Haur hezkuntzako irakasle hauek ez dute horren inguruan erantzuten jakin. Hala ere, berdintasuna bermatzen dela esaten dute.

Aipatu dugun moduan, Berdintasun Planaren aspektua ez dute oso argi irakasleek baina, dokumentu horretan ez ezik, beste dokumentuetan, curriculum barne, berdintasuna bermatzen dela esaten dute denek, nahiz eta, zelan suspertzen den oso argi ez izan. Beraz, esparru honekiko informazio falta handia dutela sumatu daiteke eta hori argi ikusten da genero berdintasunarekiko formakuntza edota sensibilizazio saiorik jaso duten galdetzen zaienean; guztien erantzuna berdina da: “Ni hemen nagoenetik ez”.

Elkarrizketaren beste esparru bat esparru didaktikoa izan da eta honetan, ia erantzun gehienetan bat egiten dute irakasle guztiek. Klaserako materiala aukeratzekoan, adibidez, genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten dutela diote elkarrizketatu guztiek bat ez ezik. Tutorearen arabera, materialak eskatzerako orduan bai izaten dute kontuan genero berdintasuna, hala ere, ipuin tradizionalak ere badituzte eta horiek ez dute genero berdintasuna bermatzen eta, horrekin batera, proiektuetarako materiala bilatzen dutenean, ez diote genero berdintasunari garrantzirik ematen, materiala proiektuarekin lotura izatea besterik ez dute bilatzen.

Horrez gain, klaserako programaketak egiterakoan, genero berdintasuna kontuan izaten den edo ez galdetu zaienean, erantzun ezberdinak jaso ditugu. Gehiengoek kontuan hartzen ez dutela esaten dute, hala ere, badaude kontrako iritzia duten irakasleak ere. Klaseko taldekatzeari eta ardura berdinen aukerapenei dagokienez, ordea, denak bat datoz genero berdintasuna abiapuntu izanik antolatzen dituztela aipatzerakoan. Horrekin batera hizkuntza inklusiboa erabiltzen dutela adierazten dute irakasle denek.

Azkenik, iritzi pertsonalen esparrua dugu eta honetan bai, denak datoz bat erantzun guztietan. Denek baieztatzen dute bai ikasgelan, bai ikastolan berdintasuna bermatzen dutela, eta denek ikusten dute beraien burua berdintasuna bermatzearen alde. Ikasgela barruan, irakasle bakoitzak genero berdintasuna suspertzen duela esaten du eta bi generoen lorpenak berdin-berdin azpimarratu eta biei laguntza berdina eskaintzen zaiela diote.

- Dokumentuen analisisia

Atal honetan, gure asmoa Ikastolako Berdintasuna Plana, Hezkuntza Proiektua eta ikasgelako programazioa behatzea izan da, berdintasuna kontuan izaten den eta plan hori jardueretan aplikatu egiten den edo ez kontrastatzeko. Esparru honetan, zenbait gabezi aurkitu ditugula esan beharra dugu; izan ere, ikastola honetan ez dute Berdintasun Plan idatzirik, egia da, abian jartzen ari direla baina, momentuz, burutu beharreko proiektu edo ideia bat besterik ez da. Horren eraginez, ez dago berdintasuna bermatzeko eta aplikatzeko araudirik edo oinarririk.

Gauzak horrela, egiten dituzten programazioetan berdintasunaren gaiak ez du lekurik eta ez dute hau kontuan hartzen aipatutako programaketak sortzerakoan. Saiatzen dira genero estereotiporik ez transmititzen baina, idatziz ez dago ezer islaturik.

Hala ere, Ikastolako Hezkuntza Proiektuan genero berdintasuna bermatzearen ezinbestekotasuna islatuta ageri da eta hezkidetzaren aldeko aukera argia egiten dute, berori sexuen arteko eskubideen berdintasunerako hezkuntza bezala ulertuz. Proiektu honetan aipatzen denaren arabera, ikasleen arteko desberdintasunak gainditzeko beharrezko ahaleginaren alde daude.

4. Ondorioak

Aztertu ahal izan dugun moduan, ikastetxe honetan, gehien bat irakasleen ardura izaten da genero berdintasuna sustatzea eta genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzea. Lanaren hasieran aipatu izan dugun moduan, gehienetan, zeharkako modu batean tratatzen da gai hau, irakasleak gaiarekiko duen interesa eta konpromisoaren arabera. Kasu honetan, aztertutako irakasleak bere jardun praktika ondo betetzen du, saiater da genero estereotiporik ez transmititzen eta ondo betetzen du bere funtzioa. Hizkuntza inklusiboa erabiltzen ahalegintzen da, berdin tratatzen ditu bai neska, bai mutilak, eta genero berdintasuna sustatzen saiater da aspektu guztietan.

Hala ere, nahiz eta hizkuntza inklusiboa erabiltzeko asmoa izan, batzuetan aurreiritziak direla eta, hizkuntza sexista erabili izan du, nahiz eta, konturatzen den momentuetan berehala zuzentzen saiatu. Baina, hori hobetu beharreko zerbait izango litzateke. Horrez gain, esandako aurreiritzi horiek direla eta, higienezaren arloan, adibidez, neskei mutilei baino gehiago eskatzen die.

Irakasleak eskaintzen duen materialei dagokienez, arlo honetan bai gabezia batzuk sumatu ditugula. Nahiz eta materialen eskaera egiten dutenean estereotipatuak ez egotea bilatzen duten, jada ikasgelan dauden zenbait materialek ez dute genero berdintasuna bermatzen eta ez da ezer egiten hori zuzentzeko. Horrekin batera,

proiektuetarako materialen aukeraketa egiterakoan ere, ez da genero berdintasuna bermatzen duten edo ez kontuan izaten.

Beraz, irakaslearen genero estereotipoenganako jardunaren egokitasunari erreferentzia eginez, zenbait aurreiritzi eta materialen aukeraketa okerra ez ezik, orokorrean, irakasle hau genero berdintasuna sustatzen saiatzen dela argi baieztatu dezakegu; nahiz eta gai honekiko informazio eta baliabide eta material falta handia izan.

Horrez gain, irakasleak bere jardun praktika ondo bete ahal izateko, eta hau indartzeko, genero berdintasuna bermatzen duten Ikastolako dokumentuen laguntza ezinbestekoa izango litzateke, eta nahiz eta Ikastolan Hezkuntza Proiektua izan, eta honetan genero berdintasunaren baloreak sustatu, Berdintasun Plan idatzi baten falta sumatzen da. Genero estereotipoen haustura indartzeko dokumentu idatzirik ez egoteak, irakasleen funtzioa oztopatzen du eta estereotipatu gabeko ikasketa bat emateko zailtasunak ematen ditu; izan ere, gabezi hori dela eta, programaketetan ez da berdintasuna kontuan hartzen edota materialen aukeraketan, ez zaio behar besteko garrantzirik ematen estereotipatuak ez egoteari.

Amaitzeko eta konklusio moduan, aipatu beharra dago, lan honetan nire helburu nagusia irakasleen genero berdintasunean edo estereotipoetan oinarritzen duten bere jardun praktika ezagutzea izan dela, eta aztertu ahal izan dudanaren arabera, irakasleak, aspektu gehienetan genero berdintasuna bermatzen du. Lanaren hasieran aipatu dugun moduan, aurrerakuntzak eman dira azken urteotan eta genero estereotipoen haustura ematen ari da, eta horren islapena dugu Ikastola honetan. Hala ere, zenbait gabezia, baita hobetu beharreko zenbait aspektu ere, sumatzen dira oraindik eta horretarako, proposamen batzuk egin ditugu.

Hasteko, irakaslearen aurreiritziak alde batera uzteko eta guztiz estereotipatu gabeko jarrera bat izateko eta kontzientzia hartzeko, genero berdintasunaren inguruko formakuntza edo sentsibilizazio saioen bat jasotzea oso eraginkorra izan litekeela uste dugu.

Materialen arloari dagokionez, eduki kurrikularrak transmititzen dituen materialen inguruan hausnartzea ezinbestekoa dela deritzogu. Horrez gain, irakasleak ikasgelan dituen materialak aztertu beharko lituzke eta genero estereotiporik transmititzen ez dituztela ziurtatu; berdintasuna bermatzen ez dituztenak moldatuz (ipuinak adibidez, transkribatu, rolak aldatu...) edota baztertuz. Horrekin batera, proiektuetarako materiala aukeratzekoan, genero berdintasuna bermatzen dutela lehenetsi beharko lukete.

Amaitzeko, eta ikastola mailan, dokumentu idatziei dagokienez, lanaren hasieran aipatutako Anti-bias curriculum, Berdintasun Plana edota Eusko Jaurlaritzako 2013ko plana ezartzea nahitaezkoa izango litzatekeela uste dugu; izan ere, horien bidez, ikastolako aspektu guztietan genero berdintasuna kontuan hartuko litzateke eta ondorioz, irakasleen jardunerako erraztasunak emango lituzkete, genero estereotiporik gabeko ikasketa oso bat emateko aukera paregabea emanez.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- ALFONSO, P. eta AGUADO, J. P. (2012) Estereotipos y coeducación. *Consejo Comarcal del Bierzo. Departamento de Formación, Empleo, Desarrollo e Igualdad de Oportunidades.*
- AZPIROZ, A. (2005). Hezkidetza detaile sutilen indarra. *Hik hasi, 96*, 8-17orr.
- BONAL, X. (2008). Las actitudes del profesorado ante la coeducación: Propuestas de intervención (7-9orr., 68-75orr.).
- BONDER, G. (1993): La igualdad de oportunidades para mujeres y varones. Una meta educativa. *Programa nacional de promoción de la mujer en el área educativa.* Buenos Aires: UNICEF.
- CAPDEVILA, R., VENDRELL, R., CILLER, L. eta BILBAO LA VIEJA, G. (2014). La evaluación de la equidad de género en Educación Infantil: estudio paralelo en el

Departamento de la Paz (Bolivia) y en la Comunidad Autónoma de Cataluña (España). *Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa*, 7(1), 63-77orr.

- COLÁS, P. eta JIMÉNEZ, R. (2006). Tipos de conciencia de género del profesorado en los contextos escolares. *Revista de Educación*, zenb. 340, 415-444orr. Universidad de Sevilla.
- Diccionario online de la educación. *Educando en igualdad*, 43-54orr. (http://www.educandoenigualdad.com/antiguaweb/IMG/pdf/DiccionarioONLINE_DE_COEDUCACION-pdf.pdf web orrialdetik eskuratuta 2015-03-23).
- DORELO, L. (2005). La perspectiva de Género en la Educación: la coeducación, un desafío. *ISEF Digital*, 6. edizioa, Abendua.
- Espainia. Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo. *Boletín Oficial* del Estado, 4 de octubre de 1990, zenb. 238, 10-26orr.
- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA (2013). *Hezkuntza sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*.
- Euskalnet. (2006). ¿Es posible desaprender los estereotipos en la escuela?. (<http://www.euskalnet.net/muskiz/pag52.htm#marcador4> web orrialdetik berreskuratuta 2015-01-12).
- EUSKO JAURLARITZA (2013). Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo. *Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila*, Vitoria-Gasteiz, 6-67orr.
- Gender Loops. Herramientas, metodologías, recursos y estrategias para trabajar los temas de género. Para profesores/as y técnicos/a de la educación infantil y centros de formación del profesorado (universidades y centros de secundaria).

(<http://www.genderloops.eu/es/proyecto.php> web orrialdeak berreskuratuta 2014-11-26).

- HERNÁNDEZ, J. M. (2010). Hizkuntza aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritzako hurbilpena. Soziolinguistika Klusterraren lankidetzarekin eta gidaritzapean.
- HOHENSEE, J.B. eta DERMAN-SPARKS, L. (1992). Implementing an Anti-Bias Curriculum in Early Childhood Classrooms. *ERIC Digest*, 1, 1-6orr.
- HUICI, C. eta MOYA, M. (1997): «Estereotipos», in F. Morales *et al.*: *Psicología social*. Mexiko: McGraw Hill, 285-333orr.
- KIM, S-K. eta LEWIS, G.F. (1999). Children's Gender Role Stereotyping: The Effect on Asian and Non-Asian Australian Pre-school Children of an Anti-bias Curriculum. ROY EVANS, *Early Child Development and Care* (orr. 121-134). Sidney, Australia: Routledge.
- LARRINAGA, A., USATEGUI, E., AMURRIO, M., eta DEL VALLE, A. (2011). Bigarren eta unibertsitateko hezkuntzako ikasleen genero-estereotipoak: eskolari eta bestelako sozializazio guneei begirada. *Euskal Herriko Unibertsitatea: Soziologia Saila. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea*, 23, 7-28orr.
- LIN, M., LAKE, V.E. eta RICE, D. (2008). Teaching Anti-Bias Curriculum in Teacher Education Programs: What and How. *Teacher Education Quarterly*, 35(2), 187-200orr.
- MARTINEZ, M. (2006). Validez y confiabilidad en la metodología cualitativa. *Paradigma*, 27, 7-33orr.

- RAINEY, A.B. eta RUST, J.O. (1999). Reducing gender estereotyping in Kindergartners. ROY EVANS, *Early Child Development and Car*, 121-134orr. Sidney, Australia: Routledge.
- REBOLLO, M. A., VEGA, L., GARCÍA-PÉREZ, R. (2011). El profesorado en la aplicación de planes de igualdad: conflictos y discursos en el cambio educativo. *Revista de Investigación Educativa*, 29 (2), 311-323orr.
- RODRIGUEZ, A. M. (2008). La coeducación en Educación infantil. *Innovación y Experiencias Educativas*, 11, 1-8orr.
- SANTOS, M.A., ARENAS, M. G., BLANCO, N., CASTAÑEDA, R., HERNÁNDEZ, G., JARAMILLO, C., MORENO, E., OLIVEIRA, M., SIMÓN, M. E. (2000). El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar, 11-22orr.

6. Eranskinak

6.1. 5 urteko gelako irakasleari egindako elkarrizketa

Aipatu beharra dago, elkarrizketa hau grabatu izan dela eta hurrengokoa, ahoz egindako elkarrizketa horren transkripzioa dela.

ESPARRU INSTITUZIONALA

1. Berdintasun planik duzue Ikastolan? Egon, paperean, momentuz ez dago, egiten ari dira, badakit lanean ari direla horretan baina, momentuz paper baten eta liburuxka baten edo leku konkretu baten ez daukagu ezer ere ez.
2. Berdintasun plana gogoan izaten duzue umeentzako jarduera didaktikoak prestatzerakoan? Ba, momentuz ez daukagu planik.
3. Berdintasun baloreak bermatzen dira zentroko dokumentuetan? Bai eta suposatzen dut gainera, dokumentu guztietan bermatzen direla.
4. Curriculumean integraturik dago berdintasunaren sustapena? Modu inplizitu batean, egon badago.
5. Klaustroko batzarretan genero berdintasunaren gaia tratatu duzue inoiz? Ba, ni hemen nagoenetik ez, bederatzi urte daramatzat eta ez.
6. Gai honi buruzko formakuntza saio edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzue inoiz? Ez, ni hemen nagoenetik ez. Ez dakit lehenago egin diren, baina ez.
7. Modu inplizituan edo esplizituan lantzen da genero berdintasuna? Ba, modu inplizitu baten.

ESPARRU DIDAKTIKOA

1. Egiten dituzuen programaketetan generoa kontua izaten duzue? Ba kontutan izan, beti hartzen da kontutan, baina islatuta, adibidez, programaketetan eta, ez dugu uzten, idatziz ez da uzten.

2. Ikasgelarako materialak aukeratzekoan genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten duzue? Estereotipatuak ez egotea bilatzen duzue? Ba, adibidez, Olentzerok ipuinak ekartzen dituenean edo beste jostailu batzuk, kontutan izaten da, ipuinetan begiratzen dugu eta horrek ipuinak erosten ditugu. Gero, badaude klasikoak eta horrek direnak dira eta listo.

Bai gertatzen dena, ba askotan proiektuka lan egiten gaudenez, askotan ez dugu begiratzen estereotipatuak edo ez diren ipuinak, ze garrantzi gehiago ematen diogu proiektuarekin lotuta doan ipuin bat izateari eta hori, bueno, moldatu ahal izango genuen ere bai, baina bueno momentuz ba...

Baina bueno, orokorrean, material guztiak bai begiratzen dira.

3. Klasean dauden ikasle taldeak genero berdintasuna kontuan izanik antolatzen dira? Bai, beti.

4. Klaseko ardura ezberdinak betetzeko (argiak piztu/amatatu, atea itxi, arbelera irten, ...) berdintasunez aukeratzeko dira bai neskak bai mutilak? Bai, hau ere beti.

5. Neskek eta mutilek berdinean erabiltzen dute gelako espazioa? Bai, sarritan gelaren arabera, bai konturatu naiz ba... batzuetan badaudela talde batzuk ba korruan jesarritan daudenean, ba mutilak beti egoten direla mutilekin, neskak neskekin, baina, bueno, gero, beste espazioa erabiltzen dute berdinean-berdinean.

6. Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da? Bai, normalean saiatzen gara baina batzuetan konturatu barik eskapatzen zaigu. Hala ere, konturatzen garenean konpontzen saiatzen gara.

IRITZI PERTSONALEN ESPARRUA

1. Ikastolan berdintasuna bermatzen da? Bai.
2. Ikasgelan berdintasuna bermatzen da? Ikasgelan ere bai.
3. Ikasgelan genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzen duzu? Bai, gainera batzuetan, ba... eskapatzen zait nahi barik eta momentuan konturatzen naiz, orduan, konpontzen saiatzen naiz. Beste batzuetan, igual esango dut zerbait eta agian konturatu ere ez naiz egin, hor barruan daukagulako askotan eta ya... Baina bueno, konturatzen naizenean behintzat, konpontzen saiatzen naiz.
4. Kontuan izaten dituzu nesken eta mutilen ideiak eta ekarpenak? Bai.
5. Bai mutilak bai neskak beraien helburuak bete ditzaten animatzen dituzu? Bai.
6. Bi generoek beraien gaitasunak garatzea, eta biak baloratuta sentitzea bilatzen duzu? Bai.
7. Ikastaldean mutilak eta neskak seguru eta onartuak sentitzen dira? Bai.
8. Laguntza berdina eskaintzen diezu mutilei eta neskei? Bai, hor ez da inoiz begiratzen, neska den zein mutila den, behar dutenean, berdin-berdin.
9. Mutil eta nesken arteko elkarreragina bermatzen duzu? Bai.
10. Neska eta mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira? Bai eta izan behar dira.
11. Berdin tratatzen dituzue neskak eta mutilak (bien lorpenak azpimarratzen dira, biei ematen zaie hitz egiteko aukera berdina, ...)? Bai, hor bai.

6.2. Mailako irakasleei egindako galdetegiak

- A irakaslea: 2015eko apirilaren 29a.

Apirilak 29

GENERO ESTEREOTIPOAK HAUSTEN

ESPARRU INSTITUZIONALA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Berdintasun planik duzue ikastolan?	X		
Berdintasun plana gogoan izaten duzue umeentzako jarduera didaktikoak prestatzerakoan?		X	
Berdintasun baloreak bermatzen dira zentroko dokumentuetan?	X		
Curriculumean integraturik dago berdintasunaren sustapena?	X		
Klaustroko batzarretan genero berdintasunaren gaia tratatu duzue inoiz?		X	
Gai honi buruzko formakuntza saio edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzue inoiz?		X	
Modu inplizituan edo esplizituan lantzen da genero berdintasuna?	X		

ESPARRU DIDAKTIKOA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Egiten dituzuen programaketetan generoa kontua izaten duzue?		X	
Ikasgelarako materialak aukeratzekoan genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten duzue? Estereotipatuak ez egotea bilatzen duzue?		X	
Klasean dauden ikasle taldeak genero berdintasuna kontuan izanik antolatzen dira?	X		
Klaseko ardura ezberdinak betetzeko (argiak piztu/amatatu, atea itxi, arbelera irten, ...) berdintasunez aukeratzeko dira bai neskak bai mutilak?	X		
Neskek eta mutilek berdinean erabiltzen dute gelako espazioa?	X		
Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da?	X		

IRITZI PERTSONALEN ESPARRUA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Ikastolan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzen duzu?	X		
Kontuan izaten dituzu nesken eta mutilen ideiak eta ekarpenak?	X		
Bai mutilak bai neskak beraien helburuak bete ditzaten animatzen dituzu?	X		
Bi generoek beraien gaitasunak garatzea, eta biak baloratuta sentitzea bilatzen duzu?	X		
Ikastaldean mutilak eta neskak seguru eta onartuak sentitzen dira?	X		
Laguntza berdina eskaintzen diezu mutilei eta neskei?	X		
Mutil eta nesken arteko elkarrenergina bermatzen duzu?	X		
Neska eta mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira?	X		
Berdin tratatzen dituzue neskak eta mutilak (bien lorpenak azpimarratzen dira, biei ematen zaie hitz egiteko aukera berdina, ...)?	X		

- B irakaslea: 2015eko apirilaren 23a.

Apirilak 23

GENERO ESTEREOTIPOAK HAUSTEN**ESPARRU INSTITUZIONALA**

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Berdintasun planik duzue ikastolan?	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
Berdintasun plana gogoan izaten duzue umeentzako jarduera didaktikoak prestatzerakoan?		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Berdintasun baloreak bermatzen dira zentroko dokumentuetan?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Curriculumean integraturik dago berdintasunaren sustapena?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Klaustroko batzarretan genero berdintasunaren gaia tratatu duzue inoiz?		<input checked="" type="checkbox"/>	
Gai honi buruzko formakuntza saio edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzue inoiz?		<input checked="" type="checkbox"/>	
Modu inplizituan edo esplizituan lantzen da genero berdintasuna?		<input checked="" type="checkbox"/>	

ESPARRU DIDAKTIKOA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Egiten dituzuen programaketetan generoa kontua izaten duzue?		<input checked="" type="checkbox"/>	
Ikasgelarako materialak aukeratzekoan genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten duzue? Estereotipatuak ez egotea bilatzen duzue?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Klasean dauden ikasle taldeak genero berdintasuna kontuan izanik antolatzen dira?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Klaseko ardura ezberdinak betetzeko (argiak piztu/amatatu, atea itxi, arbelera irten, ...) berdintasunez aukeraten dira bai neskek bai mutilak?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Neskek eta mutilek berdin erabiltzen dute gelako espazioa?	<input checked="" type="checkbox"/>		
Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da?	<input checked="" type="checkbox"/>		

IRITZI PERTSONALEN ESPARRUA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Ikastolan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzen duzu?	X		
Kontuan izaten dituzu nesken eta mutilen ideiak eta ekarpenak?	X		
Bai mutilak bai neskak beraien helburuak bete ditzaten animatzen dituzu?	X		
Bi generoek beraien gaitasunak garatzea, eta biak baloratuta sentitzea bilatzen duzu?	X		
Ikastaldean mutilak eta neskak seguru eta onartuak sentitzen dira?	X		
Laguntza berdina eskaintzen diezu mutilei eta neskei?	X		
Mutil eta nesken arteko elkarrenergina bermatzen duzu?	X		
Neska eta mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira?	X		
Berdin tratatzen dituzue neskak eta mutilak (bien lorpenak azpimarratzen dira, biei ematen zaie hitz egiteko aukera berdina, ...)?	X		

6.3. Hezitzaile bereziei egindako galdetegiak

- A Hezitzailea: 2015eko apirilaren 20a.

Apirilak 20

GENERO ESTEREOTIPOAK HAUSTEN

ESPARRU INSTITUZIONALA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Berdintasun planik duzue ikastolan?	X		
Berdintasun plana gogoan izaten duzue umeentzako jarduera didaktikoak prestatzerakoan?	X		
Berdintasun baloreak bermatzen dira zentroko dokumentuetan?	X		
Curriculumean integraturik dago berdintasunaren sustapena?	X		
Klaustroko batzarretan genero berdintasunaren gaia tratatu duzue inoiz?			X
Gai honi buruzko formakuntza saio edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzue inoiz?			X
Modu inplizituan edo esplizituan lantzen da genero berdintasuna?			X

ESPARRU DIDAKTIKOA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Egiten dituzuen programaketetan generoa kontua izaten duzue?		X	
Ikasgelarako materialak aukeratzekoan genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten duzue? Estereotipatuak ez egotea bilatzen duzue?	X		
Klasean dauden ikasle taldeak genero berdintasuna kontuan izanik antolatzen dira?	X		
Klaseko ardura ezberdinak betetzeko (argiak piztu/amatatu, atea itxi, arbelera irten, ...) berdintasunez aukeratzeko dira bai neskak bai mutilak?	X		
Neskek eta mutilek berdinean erabiltzen dute gelako espazioa?	X		
Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da?	X		

IRITZI PERTSONALEN ESPARRUA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Ikastolan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzen duzu?	X		
Kontuan izaten dituzu nesken eta mutilen ideiak eta ekarpenak?	X		
Bai mutilak bai neskak beraien helburuak bete ditzaten animatzen dituzu?	X		
Bi generoek beraien gaitasunak garatzea, eta biak baloratuta sentitzea bilatzen duzu?	X		
Ikastaldean mutilak eta neskak seguru eta onartuak sentitzen dira?	X		
Laguntza berdina eskaintzen diezu mutilei eta neskei?	X		
Mutil eta nesken arteko elkarrenergina bermatzen duzu?			
Neska eta mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira?	X		
Berdin tratatzen dituzue neskak eta mutilak (bien lorpenak azpimarratzen dira, biei ematen zaie hitz egiteko aukera berdina, ...)?	X		

- B Hezitzailea: 2015ko apirilaren 13a.

Apirilak 13

GENERO ESTEREOTIPOAK HAUSTEN**ESPARRU INSTITUZIONALA**

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Berdintasun planik duzue ikastolan?	X		
Berdintasun plana gogoan izaten duzue umeentzako jarduera didaktikoak prestatzerakoan?	X		
Berdintasun baloreak bermatzen dira zentroko dokumentuetan?	X		
Curriculumean integraturik dago berdintasunaren sustapena?	X		
Klaustroko batzarretan genero berdintasunaren gaia tratatu duzue inoiz?			X
Gai honi buruzko formakuntza saio edo sentsibilizazio ikastarorik jaso duzue inoiz?			X
Modu inplizituan edo esplizituan lantzen da genero berdintasuna?	X		

ESPARRU DIDAKTIKOA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Egiten dituzuen programaketetan generoa kontua izaten duzue?	X		
Ikasgelarako materialak aukeratzekoan genero berdintasuna bermatzen duten kontuan izaten duzue? Estereotipatuak ez egotea bilatzen duzue?	X		
Klasean dauden ikasle taldeak genero berdintasuna kontuan izanik antolatzen dira?	X		
Klaseko ardura ezberdinak betetzeko (argiak piztu/amatatu, atea itxi, arbelera irten, ...) berdintasunez aukeraten dira bai neskek bai mutilak?	X		
Neskek eta mutilak berdina erabiltzen dute gelako espazioa?	X		
Hizkuntza inklusiboa erabiltzen da?	X		

IRITZI PERTSONALEN ESPARRUA

GALDERAK	BAI	EZ	EE/EE
Ikastolan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan berdintasuna bermatzen da?	X		
Ikasgelan genero estereotiporik ez transmititzeko arreta jartzen duzu?	X		
Kontuan izaten dituzu nesken eta mutilen ideiak eta ekarpenak?	X		
Bai mutilak bai neskak beraien helburuak bete ditzaten animatzen dituzu?	X		
Bi generoek beraien gaitasunak garatzea, eta biak baloratuta sentitzea bilatzen duzu?	X		
Ikastaldean mutilak eta neskak seguru eta onartuak sentitzen dira?	X		
Laguntza berdina eskaintzen diezu mutilei eta neskei?	X		
Mutil eta nesken arteko elkarreragina bermatzen duzu?	X		
Neska eta mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira?	X		
Berdin tratatzen dituzue neskak eta mutilak (bien lorpenak azpimarratzen dira, bie ematen zaie hitz egiteko aukera berdina, ...)?	X		